

# MAMU LURRALDEA

Txikitan mamuek paretak zeharkatzeko ahalmena zutela erakutsi ziguten. Nork ote!



Alabaina, ez ziguten kontatu mamuek mugak erakitzeke ahalmen berezia dutenik. Areago, mamurik ausart eta alaienak, komunismoak, mundua

bitan zatitu zuen. European mamu jokoak gustuko ditugu. Bata bestearen atzetik kontinente txiki honetan zehar dabilta zeharkatu ezingo ditugun muga berriak klera zuriz marraztuaz. Hain zuzen, pentsatu zitekeenari mugak ezarriz Europak mundua menperatu zuen.

Gaur egun Europak ez dio beldur soilik arrotzari. Bere buruaren beldur da. Kutsatzearen beldur. Amildegia



beldur. Geroaren bildur. Ziur eta pribilegiatu sentiarazten gintuen Europa gotorlekua mina eremu bilakatu da. Mina eremu-

etan mugak edonon dira. Bildurrak metro karratu bakoitza ereiten du, etxeetan barrena sartuz, lurra antzutuz. Eraso ezin dugun etsai atzemangaitz batek eman dezakegun pauso bakoitzaren erritmo eta mugimendua diktatzen du. Orduan, barrikada eta trintxerarik gabe, biolentziak ez du xederik. Geure hanka azpian lehertarazten dugun bonba da.



Bildurrezko eszenatoki berri honetan Europa bera da mamua. "Europa iritsiko da..." diote... "Europa gehiago behar dugu"

gehitzen dute gero eta bildurrez dardarka hasten gara denok. Beltzezko gizonak, memorandumak, erreformak, interbentzioak,

kaleratzeak, poliziaren errepresioa eta Eurokoparen fikzio koloretsua. Europa izan den idea zahar horren hileta ilunaren lekuko al gara? Bere bukaera ospatzeko ordua al da? Batetik, antieuropeismoak nortasun eta nazioen bandera altxatzen du eta bestetik, beste ahots batzuek higatutako ideal baten defentsari kantatzen diote: humanismoa, bermeak, libertateak, ongizate estatua. Bere defentsalariak izatea al da geratzen zaigun bakarra? Galdutako fikzio baten alde borrokatzea?



Benetazko tranpa Europa defendatzea denaren aurrementipena dut. Mamu arteko gerra honetan ez dago zer defendatu. Edozein defentsa porrota da alde zurretik. Jarrera bakar bat aukera dezakegu odolok gabeko mamu honen itzalaren aurrean: gorputza jartzea. Ahotsa jartzea. Kutsadura berrakortzea. Hiritartasunaren ideia abstraktu ororen

gainetik, gorputzek heuren gose eta elkartzun konkretuaren egia baitute. Ahotsek heuren azentuen ezpurutasunaren aberastasuna baitute, edozein zilegitasunen gainetik.

2011ko ekainaren 27an, poliziak Bartzelonan Pl. Catalunya husten zuen bitartean, Sol plazan honakoa zioen kartel bat azaldu zen: "Si



Barcelona no tiene miedo, Madrid no té por". Sasi-esaldi honekin, ziztu batez, pentsa ahal zitekeenaren mugak hautsi ziren. Hiri guztietan er-

repikaturik, hau da geuretzako nahi eta bizi nahi dugun mundu bakarraren lema.

Esaldi honekin, geure gorputzek pareta guztiak zeharkatuko dituzte.